



TORNOSOLO KOPA TRINKETEAN, elitea TORNOSOLO KOPA Trinquete, elite

M.GONZALEZ ETA ANTZIA, TITULU GOSEZ

Bihar Trinketeko Banakako TORNOSOLO KOPA SARI NAGUSIA eskuratu nahi dute izen bereko Abadiñoko trinketean (19:30etan)

Mikel Gonzalez eta Ander Antxia prest dira bihar TORNOSOLO KOPA Sari Nagusiko finala jokatzeko. Iluntzeko 19:30etan jokatuko dute biek, aurrez (18:15etan) Bizkaiko Gazte mailako finalerdia Kamiruaga (Kurene) eta Arana-k (Atxarte) jokatu ostean.

Berriztarra da titulurako hautagai nagusia joku puntu bikaina erakutsi baitu final laurden zen finalerdian. Antxia, lehiaketako partidurik jokatu gabe da oraindik, finalerdian Paxkal De Ezcurra-k uko egin baitzion jokatzeari. Aspuru-ren aurka lagunartekoa jokatu eta galduta heltzen da abadiñar beterranoa finalera, konfiantza gehiegi gabe alegia.

Halere banaka asko jokaturakoa da Antxia, esperientzia handia duen pilotaria eta horrek asko balio du halako partiduetan.

Mikel Gonzalez-i aurre egitea ez da sekula xamurra izaten. Berriztarrak abiadura itzela ematen dio pilotakada bakoitzari eta gainera trinketeko jokura ondo egokitua dago jadanik, teilatu zein sarea ondo bilatzen duelarik. Hegoaldeko pilotari onena da bera eta iparraldean ere jada tarte bat egin daukana. Guzti horregatik, bera da favorito baina edozeinek beste daki Mikel berak, aurkari duen Ander Antxia arerio oso gogorra dela.

M.GONZALEZ Y ANTZIA OPTAN EL TRIUNFO

Rivalizan por la COPA TORNOSOLO ELITE en la cancha del mismo nombre de Abadiño

Mikel Gonzalez y Ander Antxia velan armas de cara a rivalizar por el título "TORNOSOLO KOPA Sari Nagusia". Mañana viernes se citan en la final (19:30h.) tras el partido que dará inicio a la función con comienzo a las 18:15h. entre Kamiruaga (Kurene) y Arana (Atxarte) concerniente al campeonato de Bizkaia Individual Juvenil (semifinal).

El delantero de Berriz es el principal favorito desde el inicio de la competición y más tras sus dos grandes actuaciones en cuartos y semifinales. Antxia, su rival, llega a la final sin competir pues en semifinales Paxkal de Ezcurra no pudo jugar. En el amistoso disputado, el abadiñarra perdió ante Aspuru y ello le resta confianza de cara a afrontar la final. No obstante, el veterano manista de Abadiño ha jugado muchas luchas individuales y tiene experiencia a raudales por lo que la tarea seguro que no es sencilla para el favorito.

Hacer frente a Mikel Gonzalez es siempre complicado debido a la velocidad que imprime a la pelota. Además, asumido ya el juego del trinquete, maneja con destreza el tejadillo y los envíos a la red. Es el mejor trinketista de hegoalde ya con un sitio entre los 'pro' de Iparralde. Por todo ello, es favorito. Aun así, el propio Mikel es consciente de la dificultad de la final pues conoce a las mil maravillas a su rival, compañero de entrenamientos en infinidad de ocasiones.

